

San Jose-ren aldarea

Hondarribia, 43. zk., 1991-05: 3.

Hileroko artikulua idatzi aurretik, zer gai erabili izaten da nire lehen ardura. Batzutan aukera erraza da, berez sortzen zaidalako, baina bestetan gai bila jartzen naiz.

Gaurko honetan, esate baterako.

Hondarribiaz ari behar dudanez, begiratzen dut martxoan herrian gertatutako zerbait gai bezala erabili nezakeen. Hil honetan, bi jai nagusi: Aste Santua, sarri erabili dudana, eta beste bat, San Jose eguna. San Jose, nire santuetatik maitagarrienetako bat denez, ikusi nahi izan dut ea Hondarribiari dagokion zerbaitekin lotu nezakeen.

Kasu hauetan, Hondarribiaz hitzegiten duten liburuak aztertzen ditut; badira batzu. Eta San Jose-ri eskainitako aldare bat aurkitu dut.

Florentino Portu jaunak argitaratu duen azken edizioan¹ ikusten dut herrian badela aldare bat Jose Sainduari eskainia. Ez dago eliz nagusian hala ere, baizik eta Casadevante Portaleko Erakustokian.

Ez dakit zergatik Eliza nagusitik erakustokira aldatu zuten.

Baina hara Florentino Portuk diona:

"Jose Sainduaren irudia, elizako eskuin barneluzegoan zegoen, paretari atxekia, gaur Ama Birjinaren beiradura dagoen lekuan. Aldare honek bi zati zituen: San Joserren irudia bera erdian, beirazko itxidura batekin; eta bi hegaletan, San Joakin eta Santa Ana. Beste zatiko erdian, Karmengo Ama.

Tailuzko erretaulak, zutabetan zurgintzaren atributuak zituen".

Orain non dagoen esan eta gero, Portu jaunaren kapitulu honen azken esaldi bat dago:

"San Joserren irudia, Jesu haurra gabe, Hendaiako elizaren aldare nagusiaren bigarren zatian dago, lehen Parroki honetan Pilareko Ama Doatsua zegoen aldarean".

Hara gauzak nola gertatzen diren.

Bestalde, nola neroni bi zurginen biloba naizen, aita bera eta bi familietako osaba guztiak zurgiñak izan ziren, eta familietan Joxe edo Joxemari izeneko aitona, lengusuak eta anai bakarra ere Joxeba zen, urrutirago jo dut, ea Euskal Herriko zenbat herritan Jose Saindua kontuan eduki duten ikusteko, eta *Auñamendik*² ba ditu batzu katalogatuak: ARABAN: *ermitak*, Estabillo, Gamarra Menor, Nanclares de la Oca eta Salinillas de Buradon-en; Gasteizen *plaza* bat. GIPUZKOAN: *ermitak*, Arrasaten, Azkoitin, Belauntzan, Deban, Olabarrietan, Oñaten eta Bergaran. *Kapera*: Tolosan eta *komentua* Zumaian. NAFARROAN: *ermitak*: Artabin, Artazan, Izaizun, Oliten eta Tafallan; *zaharren egoitza*. Korellan, eta *hospitala*, Beran. BIZKAIAN *ermitan*: Elorrión,

¹ *Hondarribia: Notas históricas y curiosidades*, Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Hondarribiako Udala, Donostia, 1989, 611 orr.

² "Jose", 373 orr.

Mallabin (bi) eta Truziosen; *eliza*: Lekeition (Jesuren Konpainia), *komentuak*: Abandon eta Sestaon. LAPURDIN: *kapera*, Baionako Katedralean, XVIII.

Amaitzeko, *Abesti* bat ere badu San Josek, gutxienez: Aita Donostiak Iruritan jaso: "*Jose, ekar didazu*" du izena: "Jose, ekar didazu, sointxu bat egur, Haur hau otzak il etzan bizi naiz ni beldur; ama, ez du ez otzak illen; Birgina Maria, haur orrek du berekin, du dibinidatea". ("Jose", 373 orr.)².

Azkenik, ikusi izan nahi dut bi mila urtean zehar Jose izeneko Aita Santurik izan dugun: Jose, edo Joseba, (Pepe, ez!) izenarekin alegia; irakurri dut zerrenda luzea, kuriositatez, bi aldiz, eta nik behintzat ez dut bat ere aurkitu.

Errepikatzen den izen asko ikusi dut, baina Jose bat ez.

Eta neuk hau izan gehien maite dudanetako bat; San Martinen keja txikienik ere ez badut.